



EUSKAL HERRITIK IHESI, ERRUSIA KOMUNISTA BABESLEKU

Valeri Kharmalov sobietarra izotz hockey jokalaria ospetsua izan zen. Moskuko CSKA taldean 11 liga irabazi zituen eta, 1969 eta 1979 artean, munduko 8 txapelketa irabazi zituen selekzioarekin. Ez da, ordea, hain ezaguna Kharmaloven ezizena: *Patxito*. Jatorri euskalduna du-eta, gerratik ihesi SESBera heldutako beste askok bezala.



Ibai Trebiño
@errusiarzalea

Gerra Hotza bete-betean zela, Kharmalov kirolaren ikono bilakatu zen orduko Sobietar Batasunean. Horren erakusgarri da *Patxitoren* biografia jasotzen duen *17. zenbakidun kondaira* filma. 2013an argitaratu zuten eta azken urteotan Errusian diru gehien biltzea lortu duen filma da.

Kharmaloven ama ere aski ezaguna da Errusian; Bilboko Las Cortes-en jaioa, Karmen Oribe *-Begoñita* ezizenez ezaguna- 1937ko ekainaren 22an iritsi zen Sobietar Batasunera, Espainiako gerra zibiletik ihesi. Karmen Oriberen kasuan bezala, Errusiara ihes egindakoen artean daude gerora ezagun egingo ziren

beste errusiar batzuen sustraiak. Adibidez, Txetxu Biriukov saskibaloia jokalaria ezagunarenak; Klara Agirregabiria euskal iheslariaren semea da.

Begoñitak 8 urte baino ez zituen 1937ko ekainean, Santurtziko portutik Habana itsasontzira igo zenean. Kolpista faxistek sei egun geroago hartu zuten

Bilbo menpean. Gerra zibilak uholde humanitarioa bideratu zuen Euskal Herrietik Sobietar Batasunera, 3.000 ume inguru. Gehienak Euskal Herrikoak izan arren, ez ziren izan Espainiako Estatutik Sobietar Batasunera ihes egindako bakarrak. Bartzelona, Valentzia, Asturias edo Kantabriatik ere ehunka ume Errusiara joan ziren errefuxiatu.

“3.000 ume horietatik, 50 baino ez dira gelditzen”, esan digu Errusiako gerra umeen bozeramaile Francisco Mansillak. Krimeako Yaltan hiriko Artek kanpalekuan eman zituen lehenengo urteak Mansillak, Bigarren Mundu Gerra hasi arte. Gerra hastearrekin, ume gehienak bezala, Mansilla leku seguru batera eraman zuten agintariek. Arma naziak aurrera egin izanak umeen beste ebakuazio bat eragin zuen eta horrek Georgiako hiriburura, Tbilisira, eraman zuen Mansilla. Han Dimitrov fabrika sobietarrean lanean hasi zen. SESBeko aireko indarrarentzat YAK hegazkinak egiten zituen. Gerra amaituta Moskura itzuli zen Mansilla, ia bizitza osoa eman duen hirira.

Ostiralero legez, Moskuko erdigunean dagoen “espainiar zentroan” dute hitzordua faxismoaren mehatxutik ihes egindako umeek. Egun, baina, agure bilakatura, “haien tragediaz” edo egungo egoera politikoaz hitz egiteko erabiltzen dituzte ostiraleko topaketak. Udako ostiral hau berezia da. Espainiako Estatutik bisitan etorritako senideekin ordu goxo batzuk pasatzeko aukera paregabea eman die. Krimea Ukraina dela esaten dio Kontxitik barraren bestaldean dagoen senideari. “Ez, Krimea historikoki Errusia izan da”, erantzun dio bisitan etorritako senideak.

Horrelaxe pasatzen dituzte orduak hemen, eztabaida, kafe, garagardo eta barre artean. Kontxita bat-batean “beren tragediaz” hitz egiten hasi da; Moskuko ume gehienak bezala, Kontxita ere euskal herritarra da. Ortuellan jaioa, 3 urte baino ez zituela egin zuen alde Euskal Herrietik. Bere ahizpa eta amarekin batera Kataluniara egin zuten, baina bidean ezbehar handi batek guztiz aldatuko zuen familiaren etorkizuna. Ama ustekabean hil egin zen. Adinez txikia zela-eta, gauza gutxi gogoratzen badu ere, “miliziano katalan batzuei esker salbatu genuen bizitza”, esan digu ortuellarrak. PSUC alderdiko borrokalariek mugaren bestaldeko babesleku ziur



IBAI TREBIÑO



Aurreko orrian, Sobietar Batasunera ihes egindako Euskal Herriko hainbat ume. Orri honetako goiko argazkian, Nicolas Gregorio Rodriguez Moskun. Ezkerrean, Valeri Kharmalov “Patxito” izotz hockey jokalaria izarra. Eskuinean, gerrako umeak Euskal Herrietik ateratzen lagundu zuen Habana itsasontzia.

batera eraman zituzten Kontxita eta bere ahizpa. 1938an heldu zen Errusiarra Kontxita, baina iheslekua ez du ondo gogoratzen: “Ez dakit Bartzelonatik edo Frantziatik ihes egin genuen”.

Atearen bestaldetik agertu den agure irribarretsu txiki batek ongi etorria eman digu. Euskal jatorria du berak ere. Nicolas Gregorio Rodriguez 1928an jaio zen Bilbon. “Zazpi kaleetan, Tendeñera kalean hain zuzen ere”, dio harro Nicolasek. “Nire ama Salamancan jaio zen eta

aita Zamoran, baina ni bilbotar peto-petoa naiz”. Beste migrante askok bezala, industrializazioaren garaian, Nicolasek lan bila heldu ziren Euskal Herrira. Nicolas euskaraz mintzo ez den arren, bere jatorriaz harro sentitzen da: “Denek euskalduna naizela esaten didate hemen, nire azentua dela-eta”, dio barrez.

Nicolasek ere *Habana* ontzian utzi zuen Euskal Herria atzean. Senideak, ordea, Bilbon geratu ziren; hiru senide,

ama eta aita. Errepublikaren alde borrokan ari zen gudaria zuen aita. “Borde-lera eraman gintuzten lehendabizi eta handik Leningradera, *Sontay* izeneko itsasontzian”. Bidaiaren detaile eta bitxikeria asko gogoratzen ez dituen arren, ez du sekula ahaztuko bularrean idatzita zeraman “Errusia” kartel hura. Bera-ekin batera Euskal Herriko beste 1.500 umeek bidaiatu zuten Errusiaraino.

Sobietar Batasunera heldu, eta Ukrainako Odesa hirian eman zituen lehenengo urteak Nicolasek. Leningradetik tren-egintza zuten Odesarako bidaia euskal umeek. Bidaia luzea eta neketsua izan zen, baina geltoki guztietan jendeak ongi etorria eta opariak ematen zizkieten. Odesan kanpaleku berezi batera eraman zituzten umeak eta han bizitza duina egin zuten. “Ikasteko aukera izan genuen, jana ere sobran zegoen eta lo-egiteko lekua ere oso eroso zen”, esan digu. “Ezin ginen kexatu, umeak ginen eta Itsaso Beltzean bainua hartzeko aukera geneukan; Moskurekin edo Leningradekin alderatuta askoz hobeto bizi ginen Odesan”.

Ondo izan arren, ume euskaldunek ez zuten inoiz galdu etxera itzultzeko itxaropena, Nicolasek esan digunez. Halere, 1939an, gerra zibila amaituta, etxera ezin itzultzeak ezkortasuna piztu zuen ume askorengan. Moskuko Artxibategi Historikoan aurkitutako dokumentuetan umeen zailtasunez eta bizitza tristeaz irakurri dugu, eta ume askoren kexak ere jasota daude. “Jana ez zuten gustuko, eta etxetik urrun egoteak tristura ikaragarria eragiten zien umeei. Etxera bueltatzeko itxaropen guztia galdua zeukaten”.

Aberriaren Gerra Handia edo Bigarren Mundu Gerra Odesara heldu zenean eus-

kal umeen drama areagotu zen. Sobietar gobernuak babesleku segurutzat zuen Volga aldera ebakuatu zituen umeak, Saratov hirira. Han lortu zuen Nicolasek bere lehen enplegua. Eta han ere umeek ezagutu zituzten gerraren gogortasuna eta miseria. “Urte gogorak izan ziren, baldintza txarretan bizi ginen: gosea eta hotza sufritu genituen”. Mansilla eta beste euskal herritarren kasuan, Saratove-

» Gerra zibilak uholde humanitarioa bideratu zuen Euskal Herri-
tik Sobietar Batasunera,
3.000 ume inguru

» Ia 20 urte pasatu behar izan ziren lehen euskaldunak etxera bueltatu ahal izateko: 1956an

tik Georgiara edo leku “Iasaiagoetara” ebakuatu zituzten. Halere Leningraden zeunden umeekin alderatuta zorte handia eduki zuten Saratoven egondakoek. Leningradeko setioan ume asko harrapaturik geratu ziren, hiritik irten ezinean. 882 egun iraun zuen Leningradeko setioak eta milioika pertsonak galdu zu-

ten bizitza, gosearen eta hotzaren ondorioz batez ere. Ume euskaldun batzuek bertatik bertara bizi behar izan zuten nazien eraso bortitza. “Borrokatzeko adinean zeudenak, armada gorriarekin bat egiten zuten”, esan digu Nicolasek.

Ia 20 urte pasatu behar izan ziren lehen euskaldunak etxera bueltatu ahal izateko. 1956an itzuli ziren lehenengoak. “Inbidiaz” ikusi zituen Nicolasek. Berak 1968ra arte itxaron behar izan zuen. “31 urte pasatu baziren ere, nire amaren aurpegia ondo gogoratzen nuen. Hunkituta nengoen”. Ez zen gutxiagorako. Hegazkinik ez artean, tren-egintza bidaiatu zuen Moskutik Parisera eta handik Hendaiara. “Espainian sartu ahal izateko bisa jaso behar genuen Parisiko Espainiako enbaxadan”. Orduan Sobietar Batasunak ez zeukan inolako harreman diplomatikorik Espainia frankistarekin eta hori arazoa zen bisa lortzeko.

Gerra amaitu eta Moskura itzultzeko aukera eduki zuela dio Nicolasek. “Guk, euskaldunok, orokorrean zorte handia izan dugu hemen. Sobietar gobernuak emandako etxebizitza geneukan, lana, dirua, eta abar”. Gaur egungo bizitzaz kexuda, Sobietar Batasunaren desagerpena ekarri duen atzeraldi sozialak kezka handia sortzen dio. “Orain ordea ez daukagu ezer, pentsio txiki bat baino ez”. Arazoaren erruaren zati bat –errusiar gehienek bezala– “amerikarrei” egozten die.

Bizitza osoa Moskun eman ondoren, Moskun hilko dela argi du Nicolasek, baita Errusiara ihes egindako euskaldun gehienek ere. Faxismoaren biktima gisa edo bestelako onarpenik gabe hilko diren arren, gure herriatik atzerrira ihesean joandakoen testigantzek lagunduko dute justizia eta egiaren aldeko borroka bizirik mantentzen. ■



Antzuolako
Euskara zerbitzua

Herriko plaza, 8
20577 ANTZUOLA
☎ 943 766 246 · Faxa: 943 787 100
euskara@antzuola.net
www.antzuola.net

**ATXONDOKO
XIV. NEKAZAL ETA
ARTISAU AZOKA 2015**
ABENDUAK 6 / ATXONDOKO PLAZA



Antolatzailea: Atxondoko Udala




PNEUMAX, S. A.
Olaso, Edif. 15, Pab. 52-53-54
20870 Elgoibar (GIPUZKOA)
Tel: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Fax: 943 74 40 76
E.mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es

**AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKAKO OSAGAIAK**



